

Ermua Información

2014ko OTSAILA | www.ermua.es



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA

innpulso
Red de ciudades de
Ciencia e Innovación



2014KO AURREKONTUA

Herritarren parte-hartzea

Herritarrek dituzten kezka nagusiak adierazi dizkiote Udalari

Orain urte inguru Ermuko Udalak herritarrei irekitako parte hartze prozesu bat abiatzea erabaki zuen helburu argi batekin: herritarren eta udal arduradunen artean hiriaren eguneroko behar nagusiak ezartzea, inbertsio publikoetan garrantzitsuenei lehentasuna emateko, eta horiek 2014ko Aurrekontuetan sartzeko. Herritarrak ez daitezela gertakizun eta erabakien behatzaile hutsak izan eta, aitzitik, udalerriko kudeaketaren protagonista aktiboak baizik.

Ermuak gardentasunaren kultura
sustatu nahi du, ezaugarri hori
eguneko kudeaketan eta bere
nortasunean txertatuz

Joan den urtarrilaren amaieran parte hartze prozesuaren ondorioak eta jasotako proposamenak aurkeztu ziren Lobianon egindako ekitaldian. 60 pertsona baino gehiago bertaratu ziren saiora aurkeztutako

proposamenen eta horien ondorioen berri jasotzera. Herriko alkate Carlos Totorikak, eskerrak eman zizkien heritarrei "prozesu honetan guztian egin duzuen ahaleginagatik" azpimarratuz, "prozesua ez da gaurkoan amaitzen, herritarron parte-hartzea areagotu nahi dugulako". Are gehiago, "krisi garai hauetan oso garrantzitsua den lana egin da herritarrei zuzendutako parte prozesu honekin". Totorikaren ikuspegitik, "lehentasunak identifikatzea beharrezkoa da" hiritarrak gehiago kezkatzen dituzten hiru alorretara ahaleginak bideratzeko: enplegua, gardentasuna eta gizarte-laguntzetara, hain zuzen ere.

Lehen zinegotziarentzat, "egin dezakegun galdeketa-rik onena herritarrei beren iritzi eta lehentasunak galdetzea da", urteko aurrekontuari begira inbertsioak eta estrategiak horrela hobeto definitu ahal izateko. Galdeketa-aren ondorioz herritarrek planteatu dituzten hogeita hamazortzi proposamenei beste horrenbeste txosten teknikotan erantzun zaie, horien bideragarritasun juridiko eta ekonomikoa aztertu eta gero.

Prozesu honen bitartez Ermuko udalak gardentasunaren kultura sustatu nahi du eguneko kudeaketaren nortasun-ezaugarri bezala txertatzeko, eta eguneko jardueraren berri, ahalik eta modu eraginkorrean hiritarrei helarazi informazioaz baliatuz, sustraitzea. Udal-kudeaketaren jarraipen zehatzak konfiantza areagotuko du eta oposizio eraikitzaileko lanari bide emango dio.

"Egin dezakegun galdeketa-rik onena
jendeari bere lehentasunak zeintzu
diren galdetzea da"

Gardentasuna indartzeko ibili beharko dugun bidea luzea da eta ahalegin gehiago eskatuko digu, baina dagoeneko udalarentzat lehetasun da eta, aurrera pausuak emateko ahaleginean mulgilduta dago; informazioa hedetzeari, kontu eta azalpenak emateari eta, batez ere, gardentasunari, dagokionean.



HERRITARREN PARTE HARTZE PROZESUAREN EZAUGARRIAK

Parte hartze prozesuarekin Udalak hiritarren inplikazio aktiboa bilatzen du Ermuko biztanleak herriaren gertaeretan murgil daitezen eta herritarren nahi eta beharrekin bat datozen konponbide, ideia, ekarpen eta proposamenen bilaketa bateratuaren bidez, udal kudeaketaren protagonista aktiboak bihurtu daitezen.

Horrela eginez gero, lehentasunak lehenesteaz gain, hiriaren ikuspegi osoa lortuko dugu auzoen nahiz elkarten interesak uztartuta, herritarren artean parte-hartzea eta erantzukizuna-

Udalak hiritarren inplikazio aktiboa lortu nahi du, biztanle ermuarrak herriaren gertaeretan murgildu eta herriko kudeaketaren protagonista izan daitezen

ren irizpidea sustraituta, eta baita ere ermuarren eta udal teknikarien arteko elkarlana eta kohesioa indartuta. Laburbilduz, kudeaketan gardentasuna eta eraginkortasuna sustatzea da xedea, ikasketa kolektiboaren eta udal kudeaketaren eta herritarren ezagutzaren bitartez.



Parte-hartzaileek eztabaida talde txiki eta ahalik eta pluralenetan bildu ziren, proposamenak eta gaiak hainbat eta zabal edo anitzagoak izan zitezten. Hori horrela, talde bakoitzak adierazitako kezka oso ezberdin eta anitzak izan ziren.

Prozesuaren garapena

Herritarrekin bi parte-hartze saio egin dira, non Udalak lehentasunezko zat hartu beharreko gaiak zehaztu eta zein sektoretan eskuhartu behar duen definitu

Parte-hartze prozesuaren bi saioetan protagonista nagusiak herritarrak izan dira. Udalaren erabakiz, bilera horietan eta egin beharreko aurkezpen edo azalpen teknikoaz gain, baka-rik entzule eta ikusle gisa parte hartu zezaketen teknikari eta hautagaiek, saioen dinamika eta mamian nahastu gabe. Hirita-rrengandik jasotako proposamen guztien artetik, aldeko txos-ten teknikoa jaso dutenak sartuko dira aurtengo urtealdiko Aurrekontuan.



Herritarrek proposatutako gauzak kolorezko post-it papertxoetan jaso ziren, segidan horma-irudi batean jarri. Ondoren, pertsona bakoitzak guztietatik lehenesten zituen hiru adierazi behar zituelarik, horietan kolore gorriko borobil itsasgarriak erabiliz eta udalak horietan jardun behar zuela adieraziz.

Udalak hiritarren inplikazioa bilatzen du, herriko gertaera eta erabakien behatzaile huts izan ez daitezen


Lehenengo saioa

Udalak lehenetsi beharreko gaiak zehazten eman zen lehenengo saioa

Urrian egindako lehenengo saioan bertaratutakoek galdera bati buruz eztabaidatu behar zuten, “Zer lehentasunezko gai landu beharko lituzke Udalak?” 56 herritarrek erantzun zioten deialdi eta hitzorduari, haietako 29 emakumeak izanik. Ideia trukaketarako baldintza egokiak sortzeko eta pluraltasunari bide emateko sei pertsonako lantaldeak eratu ziren, elkarrekin etorritako lanegunek horietan banatu eta murgilduaz.

Erantzun bakoitza post-it izeneko papertxo batean jasotzen zen geroago horma-irudi batera eramateko eta antzerako gaien artean multzoketak egiteko. Elkartze tematikoa egin ondoren, hiru kolore gorriko eranskailu biribilak eman zitzaizkien bertaratuko bakoitzari, gai kezkarrienak eta garrantzitsuen jotzen zituztenak hirutan zehaztu eta aukeratzeko. Saioaren azken emaitzaren arabera, ermuarron kezka nagusiak ondorengo hiruak dira: enplegua, gardentasuna eta gizarte-laguntzak.

Zein arlotan jardun behar du Udalak lehentasunez? (Botoak)



Bigarren saioa

Herritarrek gehien kezkatutako eremuei jarraiki, Udalak gauzatu beharreko jarduera zehatzak definitu ziren

Kezkak definitu eta arazoak behin identifikatu ondoren, bigarren saioan herritarrek lehenetsitakoari heldu eta konpontzen saiatzeko Udalak egin beharreko ekintza eta jarduera zehatzen inguruko eztabaidari hasiera eman zitzaion. Bigarren bilera honetara hogeita hamazazpi (37) pertsona bertaratu ziren, bildutakoetatik 18 emakumeak izanik. Partaideekin sei laguneko taldeak eratu ziren, lehenengo saioaren dinamikari jarraiki. Landutako gaiak botu gehien jaso izandakoak: enplegua, gardentasuna eta gizarte-laguntzak, izan ziren hain zuzen.

Kezkak definitu eta arazoak behin identifikatu ondoren, bigarren saioan herritarrek lehenetsitakoari heldu eta konpontzen saiatzeko Udalak egin beharreko ekintza eta jarduera zehatzen inguruko eztabaidari hasiera eman zitzaion. Bigarren bilera honetara hogeita hamazazpi (37) pertsona bertaratu ziren, bildutakoetatik 18 emakumeak izanik. Partaideekin sei laguneko taldeak eratu ziren, lehenengo saioaren dinamikari jarraiki. Landutako gaiak botu gehien jaso izandakoak: enplegua, gardentasuna eta gizarte-laguntzak, izan ziren hain zuzen.

Proposamen guztiak horma-irudi batean bildu ziren, jarraian Udalak zeinetan zentratu behar zuen –hiru garrantzitsuenak– adierazi behar zituztelarik parte-hartzaileek. Gizarte-laguntzen kasuan, bi garrantzitsuenak adierazi behar zituzten, bost aukera besterik ez zegoelako guztira.

Babes edo botu gehien jaso zuen gaia enpleguarena izan zen 31 puntu gorriekin. Arlo honetan seinalatutako gai-rik garrantzitsuenak azpimarratu ziren baita ere: toki-enplegu plana babestu eta horri jarraipena ematea, enpresa txikien eraketari laguntzea, enplegu

planetan ermuarrei lehentasuna ematea eta herriko betebeharre aurre egiteko bertako gremioekin kontatzeari.

Udalaren gardentasunari dagokionez, horretan sakondu beharra dagoela esan zen webgune korporatiboa emaitzen euskarri izan arren. Proposatutako gauzen artean, Udalbatzaren bilerak zuzenean emititzea, aldira informazioa paperean argitaratzea eta banatzea eta aurrekontuetan jasotzen diren gastuei buruzko argibideak ematea. Azkenik, Gizarte Zerbitzuei dagokionez, herritarren behar zehatzak jasotzen dituen errolda prestatzeko komenigarritasuna eta izan daitekeen ‘pikarokeri’ edo iruzur kasuen zaintza eta jarraipena arreta areagotzeko eskatu zuten herritarrek.

Bi bilereaz gain, hiritarrok udal webgunearen bitartez proposamenak aurkezteko aukera ere izan dugu eta bide horretatik herrian egin ditzakegun hainbat hobekuntzari, Herritarren Parte-hartzearen zinegotzigoa eratzeari, gizon-emakumeen arteko berdintasunari eta ikastetxeetan egin daitezkeen hobekuntzei buruzko gaiak palnteatu zitzaizkigun.



Udalak zer egin behar du lehen bileran herritarrek lehentasunezkotzat jo zituzten gaiei konponbidea emateko?

ENPLEGUA

Akzioak	Botoak
- Enplegu-planak: Ermuan erroldatutakoak lehenestea. - Toki-enplegu plana: Udal tal-talderako langabetuak kontratatzea. - Herriko gremioak kontratatzea eta probintzia/herriko hitzarmenak lehenestea. Udalaren gastuak herriko merkataritza bideratzea. - Enpresek langile ermuarrak kontrata ditzaten Udalak diru-laguntzak ematea. - Herriko langabetuek mikro-enpresak sortzea eta horiek dauden azpikontratazioak (kiroldegia kasurako) erabiltzea eta etxeko zaintzetan jardungo duten emakumeen enpresak eratzea.	31
- Lan-merkaturatu ahal izan daitezen, gazteen eta 45 urtetik gorako langabetuen aholkularitza eta trebakuntza-zerbitzuetan inbertitzea. - Dagoen trabakuntza dibertsifikatzea, sektore gehiagotara zabaltzea. - Enplegu-iturri izan daitezkeenak enpresekin batera elkarlanean identifikatzea eta trebakuntza-prozesuetara bideratzea (empresak batzea).	23
- Ekintzaileak lehenestea. - Ekintzaileei laguntzea [burokrazia arintzeko]. - Ideaia-ekintzaileak laguntzea. Kudeaketa eta baimenak lortzeko denbira gutxitzea.	23
Udalak bere kontratu eta azpikontratuetan enplegu-duin eta kalitatezkoa bermatzea.	11
Ego erreka-ertzak berreskuratzeko plan integrala prestatzea eta horretarako herriko langileak kontratatzea.	9
Merkatu plazako lokalak aprobetxatzea.	9
Merkatal lokalen errentak murrizteko esku-hartzea, adibidez Donostian egin bezala.	7
ET Ei (Enpresa Txiki eta Ertainei) laguntzea.	5

GARDENTASUNA

Akzioak	Botoak
- Webgunean dugun informazioa gero eta jende gehiagori hel dakion beste bide batzuetan ere zabaltzea. - Udalbatzaren Osoko Bilkurak internet bidez eta zuntz-optikoaz baliatuz emititzea, e.a. - Aurrekontuko partida xehatuak argitaratzea (soldatak barne). - Herriari dagozkion gaien inguruan hitzaldiak egitea, orrikoak argitaratzea eta abar, egoeraren berri ematea. Adibidez: merkatu plaza, tren geltokia, ... - Herritarrekin komunikazio bide berriak eratzea: iradokizunak eta pil-pilean dauden gaiak jasotzen dituen udal hilabetekaria argitaratzea: Adibidez: merkatu plaza, obrak, zaratak, udal gastuen kontu zuritza, inbertsio berriak, ... - Herriko edozein gairi erantzuna ematea. - Aurrekontu etab enetako gastuei informatzea. - Merkatu plaza/gizarte-zentroarekin zer gertatuko da?	35
- Herrirako garrantzitsuak diren gaietan herritarren iritzia jasotzea. Esaterako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren inguruan. - Auzoetan politikari eta teknikazien inplikazioarekin parte-hartzea areagotzea, talde txikien hurbileko jarduerari bidea emanez. - Inbertsio handien inguruan herritarren iritzia ezagutzeko inkesta sistemak ezartzea, lotesleak ez badira ere.	25
- Politikarien soldatak erabat gutxitzea, udalerrriaren tamainara eta horren beharretara egokitzea. - Krisialdia mantentzen den bitartean politikarien soldatak erabat gutxitzea.	22
8.500.000€ zertan erabiltzen diren ezagutzea. Gardentasuna: - Ikastetxeetako gabeziak. - Udalerrriaren garbiketa. - Merkatu-plazaren mantenua. - Gerakinaz baliatuta "ikastetxeak" bezalako gastu garrantzitsuei aurre egitea. - Udal gastuak ezagutzea (gerdentasuna): zorra erreala, altxortegiko gerakina, eta abar...	13
Inbertsio garrantzitsua duten proiektuen inguruko informazio areagotzea: erabakitze-prozesua, helburuak, kostuen aurreikuspena eta finantzazioa.	10
Baliabideak zuzenean kudeatzea.	8

GIZARTE-LAGUNTZAK

Akzioak	Botoak
- Etxez-etxe dauden beharrak jasotzea eta errolda osatzea, esaterako amona bilobak zaintzen haurtzaindegia ordaintzeko dirurik ez dagoelako, aita-ama edo aitagarrebaz aintzen egotea pentsioagatik, ...enpleguaren hazkundera. - Gizarte-ongizate hurbilean dauden beharrei buruzko errolda osatzea eta hori eguneratua edukitzen saiatzea. "Pikareska" edo iruzurra eman ez dago jagoletza handitzea: errolda kontrolatzea, enplegu-aukera gehiago, eta abar.	22
- Dependentzia duten pertsonak. - Dependentzia duten pertsonentzako laguntzak sustatzea. - Arkitektura oztopoak ezabatzeko inbertsioa eta dependentzia duten pertsonentzako laguntzak gehitzea.	19
- Irakaskuntza, kultura, kirol eta gizarte-larrialdietarako laguntza publikoak gehitzea. - Eskolaz kanpoko kirol jarduerak egiteko kiroldegian ordaintzen diren tasak kentzea. - Porrot arriskua duten familei laguntzeko plana mantendu eta aurrera jaraitzea, egokia izateagatik. - Gizarte-ongizate alorrari aurrekontua handitzea.	16
- Gizarte-laguntzen banaketa hobetzea.. - Gizarte-laguntzak gardentasunez kudeatzea. - Gizarte-laguntzen gardentasuna areagotzea, zertarako erabiltzen diren eta nori ematen zaien ezagutzea. - Bertakoen eta atzerritarren artean gizarte-laguntzak emateko irizpidea berdintzea.	12
Zailtasun ekonomikoak dituzten familientzat etxerako eligai-zerbitzua sortzea, edadetu, gazte eta umeen nutrizio beharrak bermatzeko.	8

HIRITARREEK EGINDAKO PROPOSAMENEI EMANDAKO ERANTZUNA

Udalak herritarren proposamenei erantzun die eta aurtengo aurrekontuetan sartu eta egingarri direnak definitu ditu, baita burutu ezingo direnak eta etorkizu-neko proiektuetan sartzea edo ez ikertuko direnak ere.

BERDEA:

Egina dago edo aurtengo aurrekontuetan sartu eta egingo da

HORIA:

Burutzeko zain

GORRIA:

ez da egingo/ezin da egin

URDINA:

Legean jasotakoarekin bat

1	EMPLEGUA Enplegu-planak Tokiko enplegu-plana Prestakuntza eta orientabideak SUSTAPEN EKONOMIKOA Ekintzailetasuna sustatzea Enpresentzako diru-laguntzak Tokiko enpresekin elkarlana Tokiko merkataritza. Ekintza-plana eta Merkatu-plaza
2	EMPLEGUA (II) Tokiko merkatarì txikiak sustatzea
3	GARDETASUNA (I): NOLA KUDEATZEN DA GARDETASUNA ERMUKO UDALEAN? Udalaren gardentasuna areagotzea Udalerrriaren, herriaren gastuen gardentasuna Baliabideak zuzenean kudeatzea Langile publikoen kostua
4	GARDETASUNA (III): NOLA KUDEATZEN DA INFORMAZIOA ERMUKO UDALEAN? Lehen eskuko informazioa herriko gauzen inguruan
5	GARDETASUNA (IIII): NOLA KUDEATZEN DA GARDENTASUNA ERMUKO UDALEAN? Deuda viva del Ayuntamiento Remanente de tesorería, 8.500.000€, para qué se utiliza
6	GARDETASUNA (IV): POLITIKOEN SOLDATAK Krisialdia dagoen artean politikoen soldatak jaitea
7	GIZARTE-LAGUNTZAK (I) Laguntza publiko gehiago irakaskuntzarako eta gizarte-larrialdiko egoeretarako Gizarte-laguntzak hobeto banatzea Gizarte Laguntza Sailari aurrekontu handiagoa esleitzea Kokinkeria zaintzea, dirua jende gehiagorengana iritsi dadin: erroldatzeak, lana egiteko aukerak eta abar kontrolatzea. Tokikoei eta kanpotik datozenei gizarte-laguntza berdinak ematea
8	GIZARTE-LAGUNTZAK (II) Etkez etxe egindako premia-errolda, beharrianak antzemateko: amona zaharra bilobak zaintzen haurtzaindegia ordaintzeko dirurik ez dagoelako, emakumea aita edo aitagarreba zaintzen pentsioagatik... enpleguaren hazkundera Gizarte Ongizate Sailak eginiko premien gertuko errolda eguneratuta mantentzen aha-legintzea
9	GIZARTE-LAGUNTZAK (IIII) Mendeko pertsonentzako diru-laguntzak sustatzea Eraikuntza-oztopoak kentzeko eta mendeko pertsonentzako laguntzak areagotzeko inbertsioak gehitzea
10	GIZARTE-LAGUNTZAK (IV) Gardentasuna gizarte-laguntzetan Gardentasuna gizarte-laguntzetan: zertarako diren, zein taldek jasotzen dituen...
11	GIZARTE-LAGUNTZAK (V) Janariak etkez etxe banatzeko. zerbitzu bat sortzea ekonomikoki estu dauden familien-tzat, pertsona zahar, gazte eta haurren elikadura bermatzeko
12	KIROLA/UKE (I): ERMUKO UDAL KIROL ERAKUNDEA / UKE ERMUA KUDEATZEKO SISTEMA Haurrak eta pertsona zaharrak kiroldegira joateko diru-laguntzak, guztiek aukera izan dezaten UK Eren sistema aldatzea. Instalazioen erabilera erraztea Kiroldegia guttiz garestia da: lau kideko familia batek 100€ behar ditu hilean gutxienez bakoitzak 2 ordu astean kirola egiteko

Udaletik hiritarren proposamenei modu argudiatuan erantzuteko konpromisoa hartu genuen. Hori horrela, denetarik dugu, gai zehatz eta bakarra lantzen duten erantzunak, gai berean elkartuta sartu ahal diren proposamenak eta multzoka-tukoei erantzuten dietenak, edo aspektuen heterogeneotasunari jarraiki modu be-reizituan erantzundakoak.

Herritarren parte-hartze prozesuaren emaitza bezala, landu diren materiei eta proposatutako akzioei erantzuten dien 38 txosten tekniko prestatu dira.

13	KIROLA/UKE (II): JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA EGITEKO ESPAZIO PUBLIKOA Leku gutxi daude kirola egiteko Aisialdirako beste aukera batzuk Oinezkoentzako bideak eta mendi-bideak hobeto ipintzea
14	KIROLA/UKE (II): HIRI-ESPAZIOA ETA HAURREN JOLASA Haurrentzako kirol-kantxak. HORIA
15	TXAKURRAK Txakurren kaka egiteak kontrolatzea. Kaleak garbiago Kalean animaliak gehiago kontrolatzea. Udalerrria garbi mantentzea; animalien gorotzak (pixa eta kaka) arintzeko neurriak Udalerrria garbi mantentzeko bakoitzak duen erantzukizunaren kontzientzia hartzea, eta ez zikintzea
16	INGURUMENA (I) Ingurumen arloan plan hobeak egitea Ingurune-kutsaduraren inguruko azterketa (webean proposatuta) Birziklapenaren garrantziaz kontzientzia hartzea suspertzea, zergak jeitsiz Espazio libre gehiago, hirigintza eta ingurumen arloetan kalitate handiagoa, eraikuntza gutxiago Kolektorearen lehentasuna. Uraren prezioa jeistea
17	INGURUMENA (II) Parkeak eta lorategiak: garbi eta ondo mantentzea Zubiaurreko zuhaitzen fruituak: zikinak eta arriskutsuak dira Iturri publikoak konpontzea, Santa Anakoa adibidez
18	ESKOLA PUBLIKOAK (I) Osasungarritasuna Anaitasuna Ikastolan, bereziki hezetasunari dagokionean
19	ESKOLA PUBLIKOAK (II) Eskola publikoak mantentzeko eta hobetzeko aurrekontua gehitzea
20	ETXEBIZITZA (I). LAGUNTZAK Etxebizitzarako eta alokairutarako laguntzak
21	ETXEBIZITZA (II) Etxebizitzen birgaitzea Alokairuaren sustapena
22	ETXEBIZITZA (IIII) Alokairuen prezioak jeistea
23	TRAFIKOA (I): GIPUZKOA ETORBIDEKO ETA BIZKAIA ETORBIDEKO SEMAFOROAK Bizkaia Etorbideko eta Gipuzkoa Etorbideko semaforoek pertsonak pasatzeko denbora nahikoa emanez funtziona dezatela Trafikoaren arazoak: jardunean ez dauden semaforoetan udaltzainak egotea. Udal es-kumenekoa?
24	TRAFIKOA (II): LURRAZPIKO PASABIDEA BIZKAIA ETORBIDEAN Bizkaia Etorbidean, Paco taberna ondoan dagoen semaforoan, lurrazpiko pasabide bat egitea Kombentukoatik.
25	TRAFIKOA (IIII): SAIHESBIDEA Ermutik egunero pasatzen den kamioi kopuru handiaren arazoari konponbidea Trafikoari irtenbideak: ingurumenaren azterketa Saihesbidea
26	TRAFIKOA (IV): APARKALEKUAK Autoentzako aparkalekuak Espazioak berraztertzea, aparkaleku gehiago nola egin pentsatuz Aparkalekua hobetzea, autoak espaloietan daude-eta
27	TRAFIKOA (V): AUTOA PARTEKATZEA Autoa partekatzea


28	ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEA/IRISGARRITASUNA Zahar Etxerako irigasrritasuna hobetzea Izelaietan gurpil-aulkiak sar daitezen, bertan obrak egitea. Aldapa leuntzea Mugikortasun gutxi duten Zahar Etxeko erabiltzaileentzat irisgarritasuna hobetzea Gurpil-aulki eta haurren guditxoak ibiltzeko, irisgarritasun urbanistikoa hobetzea San Pelaioiko 20 eta 22 zenbakien artean eskailera mekanikoak jartzea Eskailera mekanikoak geldirik egoten dira sarritan... mantentze-lana egitea. Errebalburu 1,2 eta 3 an lorategietako hormak anbulantzia eta suhiltzaileen autoak sartzea eragozten du San Isidro 1, 3, 5, 7 eta 9 atarietara irisgarritasuna ez da ona
29	ZARATAK Zarata gogaikarririk ez; dantzaldi eta plaza zein inguruetako ospakizunetako dezibelioak kontrolatzea Ez egin obrarik gauean lehenago abisatu gabe Orbe Kardinala plazako jarduerak, kontzertuak, dantzaldiak eta abar, ospakizunak uda-terriko leku ezberdinetan egitea
30	ASISA (II) Aisialdirako aukerak Jolas- eta prestakuntza-jarduerak gazteentzat laguntzaileekin, eta araz-konponketa Gazteentzako gaztelekua Jolaserako espazio estaliak haurrentzat
31	ASISA (III) Miguel de Unamuno Gizarte Etxea
32	ASISA (III) Orbe Kardinala plazan karpa ipintzea
33	ASISA (IV) Oinezkoentzako mendibideak eta ibilbideak hobetzea
34	SEGURTASUNA Hiritar-segurtasun falta, lapurretak, ebasketak eta abar; kontrol gehiago azken finean
35	ARGIAK Kaleetan argi gutxi eta kale-argiak zaharrak dira Gabonetako argiak: kontsumoa gutxiagotu beharra
36	MANTENTE-LANA Zabu eta haurrentzako jostailuak konpontzea Zubiaurre kaleko baldosak labainkorrak dira

37	BERDINTASUN POLITIKAK INPLEMENTATZEN/BERDINTASUNERAKO BALIABI-DEAK/EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI -EZETZ- ESATEN DION HERRIA Emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko baliabideak ipintzea eta dau-denak hobetzea, bai eta indarkeria horren biktima diren emakumeei arreta osoa emateko baliabideak ere; babes-etxea, haurtzaindegia eta kontziliazio zer-bitzuak; emakumeen jabeakuntzarako baliabideak, mendeko pertsonen zaintza emakumeen gain bakarrik egon ez dadin; elkarsteek udalaren berdintasun poli-tikan parte hartzea suspertzen duten programak; emakumeek kirolaren eremuan modu igualitarioan parte hartzeko baliabide ekonomikoak eta abar jartzea, gizo-nek berdintasunaren kontzientzia har dezaten. Emakumeenganako indarkeria prebenitzeko baliabideak areagotzea, bai eta in-darkeria horren biktima diren emakumeei arreta guztia ematekoak ere, babes-etxebizitza; gaur egun gero eta beharrezkoagoa dira kontziliaziorako haurtzainde-giak eta bestelako zerbitzuak; emakumeen jabeakuntzarako baliabideak, mendeko pertsonen zaintza emakumeen eginkizuna soilik izan ez dadin; elkarsteek udalaren berdintasun politiketan parte har dezaten programak sustatzea; emakumeek ki-rolaren eremuan modu igualitarioan parte har dezatela; gizonek berdintasunaren kontzientzia hartzea. Ermuan dauden beharrianak aztertzean bada arazo bat, aurrerapausoak eman diren arren, oraindik konpontzeko dagoena, eta berori emakumeenganako indar-keriaren arazoa da. Asko aipatzen den arazo larria da, baina egun egiten dena bai-no askoz gehiago egin daiteke (udalerrian emakumeren bat hil arte itxaron gabe). Gazteek rol eta jokabide sexistak erakusten jarraitzen dute, eta indarkeria horren biktima diren emakume guztiek ez dute baliabide nahikoa egoera horretatik ir-tetzeko: soldatarik gabe, etxebizitzarik gabe, alokairuen prezio altuarekin, lanera doazenean seme-alabak uzteko haurtzaindegirik gabe -eta beste zailtasun ba-tzuekin gainera kanpokoak badira- eta salatu behar ote duten zalantzak dituztela, justizian eta babes-neurrietan sinisten ez dutelako... Emakumeenganako indarke-ria ezabatzen udalak eta herritarrek lagunduko duten herri bat nahi dugu, arazo horren kontra lan egiten duten elkarteei lagunduko dien herri bat. Horretarako sentzibilizazio-kanpainak egiten, prebentzio- eta heziketa-programak prestatzen jarraitu beharko litzake, eta emakumeei gertuko arreta ematen, adin txikiak ere kontutan hartuta, egonkor, etenik gabe biktima izaten jarraitzen dutelako. Udalak eredu izan behar du eta ehen begirada baten langabezia bezain larria ez dirudien arren, arazo honi lehentasuna eman.
38	HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ZINEGOTZIGOA Erakundeen jardunean herritarrak partaide egiteko ahalagin honetan (udal aurrekon-tua prestatzeko partaidetza-prozesu hau erakusgarri), prozesu horri ekiteko eta bide-ratzeko tresna berariazkoa sortu beharra dago

ENPLEGUA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE LAGUNTZAK

Udalak urteak daramatza funtsezko jo diren hiru arloetan lanean, jarduera ezberdinen bitartez.

Parte-hartze prozesutik ondorioztatzen denez, ermuarrak gehien kezkatzen di-tuen gaiak hiru dira: enplegua, gardentasuna eta gizarte-laguntzak. Udalak bada-ramatza urteak funtsezko jo diren hiru arloetan lanean eta horietan esku-hartzen eta inbertitzen jarraitzeko asmoa duelarik. Aurtengo 2014 Aurrekontuetan diru kopuru garrantzitsuak gordeko ditugu hiru alor horietako beharrei aurre egiteko eta herritarren eskariari erantzuteko.



Enplegua

Enpleguari dagokionez, Carlos Totorika alkateak esan duenez “azken urteotan, Udalaren baliabideen ia %20 helburu honetara zuzendua izan da”. Datu honek udalaren konpromisoa agerrarazten du, krisialditik haratago. Gure udalerrian “orain dela hogeita bost urtetik enplegua lantzen dela eta Toki Garapen alor indartsua dugula” adierazi du politikariak. Totorikak nabarmentzen duenez, “Udaletik aukerak sortzen dira lan egiteko gogoia duten pertsoneri laguntzeko”. Horrela, zonaldeko enpresekin bat diagnostikoak egiten ditugu “enplegu beharrekin bat datorren trebakuntza eskaini ahal izateko”. Horrez gain, jarduera zehatzak egiten ditugu industri lur-zorua kudeatzeko, ekintzaileei arreta berezia eskaintzeko eta teknologia berrien aldeko apustua “epe luzerako inbertsio baitira”; azpiegitura esanguratsu eta erakargarriak edukitzeak Ermura ekintzaile eta enpresak etor daitezela ahalbidetzen duelako.

“Parte-hartze prozesuaren ondorioak aurkezteko Lobianon egindako saioan Totorikak azpimarratu zuen “Udalak enplegu gaiak orain 25 urtetik lantzen dituela, Toki-garapen alor indartsua izanik. Enplegua lortzea errazago da merkatuak eskatzen duenerako prest egonik eta ezagutza izanik”, azpimarratu zuen. Eta trebakuntzak funtsa hori du, kontratatzaileek jende prestatua nahi dutelako”. Gainera, akzio zehatzak egiten ditu industria-lurzorua kudeatzeko, etorkizunean egun ditugun enpresen beharrei edo etorri daitezkeenei erantzun ahal izateko”.



Gardentasuna

Gardentasuna hiritarrek lehentasunezkoztat jo duen beste aspektu bat da. Horren harira Ermuko alkateak “azkenengo 20 urtetan ez diogu inori ukatu ez ezkutatut informaziorik, ez alderdi politikoei ez herritarrei, inoiz” azpimarratu du, eta jendearen kezka gai honetan ulertzen du “ezinbestekoa baita erakunde publikoek esan dezagula oso garbi zertan erabiltzen dugun diru publikoa”. Totorikak gogoratzen du Udalak gardentasun gaia prestatzen hasi zuela orain dela hiru urte baino gehiago. “Atal hau lantzen ari garela erakundean” adierazi zuen eta duela “hiru urtetik teknologiarri nahiz egiturari dagokionez informazioa eta datuak kudeatu eta emateko prest gaudela” erantsiz. “Lege eta betebeharrak izan aurretik, zeregina gain hartu eta ITA erakundearen 80 adierazleak argitaraturik ditugu guztion ezagutzarako. Gardentasunak hobeto lan egitera garamatzala uste baitugu, modu eraginkorrago eta azkarragoan”.



PROPOSATUTAKO EKIMENAK

EMPLEGUA

- Enplegu-planak.
- Tokiko enplegu-plana.
- Prestakuntza eta orientabideak

SUSTAPEN EKONOMIKOA

- Ekintzailetasuna sustatzea
- Enpresentzako diru-laguntzak
- Tokiko enpresekin elkarlana.
- Tokiko merkataritza. Ekintza-plana eta Merkatu-plaza

PROPOSATUTAKO EKIMENAK

GARDENTASUNA

- Udalaren gardentasuna areagotzea.
- Udalerriaren, herriaren gastuen gardentasuna.
- Baliabideak zuzenean kudeatzea.
- Langile publikoen kostua.
- Lehen eskuko informazioa herriko gauzen inguruan
- Udaletxeko biziko deuda
- Gainerako diruzaintza, 8.500.000€,zertarako
- Krisialdia dagoen artean politikoen soldatak jaistea

INFORMAZIO GEHIAGO:

WWW.ERMUA.ES



Gizarte-laguntzak

Krisialdia luzatu izanak egoera ekonomiko larriari aurre egitera eraman izan ditu gure gizarteko familia ugari, egoeraren larritasunak horietako hainbat porrot ekonomikoaren atarian utzi izan dituelarik.

Egoera horren jatorria familia unitateko kide bat edo gehiagok enplegua galdu izana da. Ermuar gehienok gure lanetik bizi gara eta ez dugu soldataz gaindiko beste diru-sarrera iturririk. Hori horrela, herritarren batzuk bizitzen ari dituzten arazo ekonomikoen konponbidea,

lan-merkatua indartzean eta enplegu sortzean datza, guztiok aukera gehiago izan ditzagun.

Nolanahi ere, lan-merkatuak errekupe-ratzeko eta horrek langileak barnertzen hasteko errekupeazio ahalmena, egoera larri horretan harrapatuak dauden pertsonen erantzun bat jasotzeko duten beharra baino askoz motelagoa da.

Etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko; bizitzeko ezinbestekoak diren gauzak erosteko; seme-alaben beharrei erantzuteko zailtasunak bizi dituzten

pertsonak bizi-larritasun eta bakar-dade -isolamendu- egoerara eraman ditzake, egoera argitasunez aztertu eta konponbide edo irteerak bilatzea eragotziz. Horren aurrean gizartean erantzun egin behar du, elkartasun mekanismoak abiaraziz, egoerarik okerrera bizitzen ari direnei babes sarea eskaintzeko.

Eta beharrezko da baita ere, gizartearen ongizatea lortzeko lan egitera egon eta gobernatzeko ardura dutenek, lehenetasunak egokitu ditzatela gizartearen

errealitate eta behar berriei erantzuteko. Eta egiteko hori gobernu maila guztiei dagokie.

Herriko Toki-gobernutik, udaletik eta baita sindikatuetatik, elkarrekin eta gobernu kanpoko erakundetatik ere borondate sendoa dugu bizitzen ari garen ezohiko egoera horri kolektiboki eta elkarlanean aurre egiteko. Herrian garatzen ari garen elkartasun ekimen bateratuak eta koordinazio lanak horren adierazle direlarik.



PROPOSATUTAKO AKZIOAK

GIZARTE LAGUNTZAK

- Laguntza publiko gehiago irakaskuntzarako eta gizarte-larrialdiko egoeretarako.
- Gizarte-laguntzak hobeto banatzea.
- Gizarte Laguntza Sailari aurrekontu handiagoa esleitzea.
- Kokinkeria zaintzea, dirua jende gehiagorengana iritsi dadin: erroldatzeak, lana egiteko aukerak eta abar kontrolatzea.
- Tokikoei eta kanpotik datozenei gizarte-laguntza berdina ematea.
- Etxez etxe egindako premia-errolda.
- Mendeko pertsonentzako diru-laguntzak sustatzea.
- Eraikuntza-oztopoak kentzeko eta mendeko pertsonentzako laguntzak areagotzeko inbertsioak gehitzea.
- Janariak etxez etxe banatzeko zerbitzu bat sortzea.

PROZESUAREN BALORAZIOA

Parte-hartze prozesuaren bidez udalerriaren arazoak lehenetsi dira

Herriarren proposamenei erantzunez landutako txosten teknikoek islatzen dutenez hainbat akzio burutu dira jada edo burutzea aurreikusita dago aurtengo urtealdi ekonomikoan. Hala ere, badaude bete ezin izango direnak ere, eskaera guztiak asetzeko ditugun benetako aukerak mugatuak direlako.

Parte-hartzea, azken baten, ikasteko eta eraikuntza kolektiboko prozesua izan da

Parte-hartze esperientzia hau, azken finean, ikasketa prozesu eta eraikuntza kolektiboa izan dira, horren emaitza diagnosi eta proposamenera ez delarik mu-

gatu, guztion artean zerbait partekatu eta eratu izana ere baditugulako. Carlos Totorika alkatearen arabera, prozesu hau "benetan erabilgarria izan da Udalerako. Hau ez da kea, eztabaida mota honek asko laguntzen digu hiritarren lehenetasunak antzematerako orduan". "Gainera, -gehitzen du- eztabaida hauen bidez jada ezarritako halako klaxe batzuk gainditzeko ditugu". Agintariaren esanetan, udaletxe guztietan "ez da egoera bera ematen. Ezta egiten ditugun ahal-eginak ere ez dira berberak. Udaletxe guztietan ez dira langabetuak modu berean tratatzen, ezta garrantasunari dagokionean ere, ez horixe, ez da egoera bera udal guztietan, inondik inora".

Norbanakoen parte-hartzeak lagundu egin du elkar-teei loturik ez dauden hiritarrek beren iritzia eman eta agertu izatera. Kultur, gizarte eta kirol elkar-teei, besteak beste, egiten duten lan garrantzitsua ahan-tzi

gabe, udalaren jardura sozial eta kulturala dinamizatzen lan baliotsua egiten baitute. Hala ere, hiritarren gogoeta ahalbidetzen duten ekimenetan lan egitea aberasgarri da.

"Hau ez da kea, eztabaida mota honek asko laguntzen digu lehenetasunak antzemateko orduan"

Parte-hartze handiagoa desiragarria izan arren, lortu dugu proposamenak eraikitzea eta lehenetasunaren arabera antolatzea, udalbatzari erabakiak hartzen lagunduko dioena, bai aurtengo aurrekontuetarako baita etorkizuneko proiektuetarako ere.

